# NEGUTEGIEN MANEIU EKOLOGIKOA

Kantauriar isurialdeko baldintzetan



Elkarlanean:

Biolur

eko lurra

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Lan honen osaketaz Pantxika Halsouet, Haritz Mayora eta Biolur Gipuzkoako Leire Ibarretxe arduratu dira Eko-Lurraren laguntzarekin. Diseinu eta maketazio lanak Dabid Zelaia-zugadik egin ditu. Eskerrak eman ere azken dokumentura ekarpenak egin dituzten pertsonei: Roberto Eciolaza, Larizgoitia anaiak, Ibai Etxaniz, Fernando Zurdo, Unai Aranguren, Mirian Arrizabalaga, Monika Irazola eta Xabier Lejarzegi.

Biolur
www.biolur.net
biolur@biolur.net
943 76 14 47

eko lurra
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi
www.ekolurra.eus
info@ekolurra.eus
946 27 15 94

PEFC
ISBN: 978-84-09-18952-6

Laguntzaileak
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

NEGU EKO
TEGIEN LOGI
MANEIU KOA

# AURKIBIDEA


**01. NEGUTEGIEN ZERGATIA** 06

**02. NEGUTEGI MOTAK** 08

2.1. AUKERAKETA

**03. NEGUTEGIEN MANEIURAKO ZENBAIT GAKO** 14

3.1. LURRAREN EMANKORTASUNA 15
3.1.1. LUR LANAK 18
3.1.2. ONGARRIKETA 20
3.1.3. LURRA KALTZIO ETA MAGNESIOZ HORNITU 26
3.2. UREZTAPENA 26
3.3. BELARRAREN MANTENUA 31
3.4. EKOIZPENAREN MANEIUA 34

**04. KULTIBOAK, ERROTAZIOAK** 40

**05. NEGUTEGIKO EGOERA SANITARIOA** 46

**06. UZTAREN KUDEAKETA** 52

**07. NEGUTEGIEN MUNTAKETA** 56

# SARRERA



Aurkezten dizuegun gida honen helburua da gure baratza ekologikoetako negutegien maneiurako gako nagusiak ematea.

Baratzezaintza garatzen eta profesionalizatzen doan bezala, gure artean gero eta garrantzi handiagoa hartzen dabilen ekoizpen-tresna da negutegia. Baratzezain profesional batentzat plastikopeko baratza izatea beharrezkotzat jotzen da, batik bat, ekoizpen aukerak denboran luzatzeko edota euriaren aurrean lurra lantzeko aukera izateko. Beraz, baratza batean negutegien justifikazioa, dauden aukerak eta berauen erabilera arrazoitu nahiko genituzke, maneiuan kontuan hartu beharreko puntu nagusiak aipatzeaz gain.

Lan egokitu honi ekiteko ezinbestekoa da Euskal herriko kantauriar isurialdeko baratza ekologikoen ezaugarriak kontuan hartzea: gure klimatologia euritsua eta hezea, argi gutxiko baldintzak dauzkagu, baita materia organikoan oso aberatsak diren lurrak ere, eta baratzak produktiboki intentsiboak eta oso dibertsifikatuak direla. Eta noski, lekuko ezaugarri hauei erantsita, nekazaritza ekologikoaren irizpidetan oinarritutako maneiua hartu dugu aintzakotzat: lurraren emankortasuna zaintzea, biodibertsitatea kultiboetan eta ingurunean lantzea, eta sintesi kimikoko produkturik eta transgenikorik erabili gabe barazkiak ekoiztea.

Ondorengo orrialdetan, baldintza hauetan esperientziak baratzezain eta teknikarioi erakutsi digunarekin, puntu nagusi hauek landuko ditugu. Espero dugu zuentzako baliagarria izango dela.

**“Baratzezaintza garatzen eta profesionalizatzen doan bezala, gure artean gero eta garrantzi handiagoa hartzen dabilen tresna dira negutegiak**

**“Lurraren emankortasuna zaintzea, biodibertsitatea kultiboetan eta ingurunean lantzea, eta sintesi kimikoko produkturik ez erabiltzea dira maneiu ekologikoaren oinarriak**

